

ezagutzen al
duzu Donostia?

Goikoene

ba al da baserririk Loiolan? Bada, bai, gure arteko askok pentsatzen duguna baino gehiago eta oso onak gainera, Urumea ibaia-
ren ertzean, ibar eder eman-
korretan, baratza paregabeaz
inguratuta. Horien guztien
artean *Goikoene* baserria
bereizten dut. Etxe hau izan-
go dugu agian inguru hauetan
guztietan lur emankorrenak
dituena, *Goikoene* izena bi-
txia da benetan, goian, gaine-
an, kokatzen den etxe bati
dagokiola dirudi baina ez da
honen kasua, hau ibaiertzean
baitago.

Nire iritziz, berriz, oso egokia dela diot zeren *Loiolako Erriberak* bi zatitan banatzen ziren: *Beko erriberak* -gaurko Amara Berri eta Loiolako kaskoaren artean zeudenak- eta *Goiko Erriberak* -*Patxillardegi* baserria eta Martuteneko kartzela (Loiolakoa behar zuen izan baina) artean direnak-. Azken hauetan dago *Goikoene*. Aipatu ditugun bara-



Goikoene baserria Loiolako Goiko Erriberetan.



Etxarri anaiak, Goikoeneko nagusiak.



Goikoeneko portua.

tzez gain, bazuen beste ihar-
duerarik. Bertako familia,
Etxarritarrak, Urumea
ibaian hondarra ateratzera
dedikatzen zen. Horretarako

beraiek egiten zituzten
«alak» eta «kabarrak» eta
Goikoene berak duen portu-
tik ateratzen ziren, Santa
Katalina zubiaren azpian

hondarrez bete eta etxera
itzultzeko. Hondar hau erai-
kuntzan erabiltzen zen.

ARGAZKIAK ETA TESTUA: JOSU YELLABIDE

Josta Mendi

Prim kalea 59 • Tfnoa.: 45.53.00 • Faxe: 45.53.34

OIHALAK PISURA
KILOKA

ORDENAGAILUZ EGINDAKO
BORDATUAK
(Inizialak, izenak, marrazkiak...)

Artetxe Jenerala D • Tfnoa.: 28 07 56



ARCCO AMARA

Ordu erdi 250 pezeta
Orubete 500 pezeta

Astelehenetik
ostegunera ordu
bete baino
gehiago egonez
gero...

PELUTXE BAT OPARI!!!

Odontologia Klinika

Dr. Beobide

Medikua - Odontologoa

Ametzagaña 49
EGIA (elizaren ondoan)
Tfnoa.: 276227